

Munduaren kreazioa

Fernand Légerren tapiza

Bilboko Arte Ederren Museoan



Mikel Bilbao Salsidua

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

- © Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao
- © Paul Colin, VEGAP, Bilbao, 2014
- © Fernand Léger, VEGAP, Bilbao, 2014

Argazki-kredituak

- © Archives Blaise Cendrars: 3. ir.
- © Archives Charmet / The Bridgeman Art Library: 2. eta 8. ir.
- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1., 9. eta 13. ir.
- © RMN-Grand Palais (musée Fernand Léger) / Gérard Blot: 5. eta 7. ir.
- © The Museum of Modern Art, New York: 11. ir.

Argitalpena:

Buletina = Boletín = Bulletin. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 8. zenb., 2014, 185.-217. or.

Babeslea



metro bilbao

Zer egingo ote du artistak bere ikus-entzuleak lortzeko, bizitzako antzezpen erraldoiak zapaltzen duenean? Aukera bakarra du: inguruko guztia lehengaitzat hartuta edertasunaren mailara goratzea, begien aurrean garatutako zurrunbiloan ustezko balio plastiko zein eszenikoak aukeratzea, zentzu ikusgarrian interpretatzea, batasun eszenikoa erdiestea eta kosta ahala kosta menderatzea. Behar beste hezi ezean eta goi-maila lortu ezean, bizitzak berak zapalduko du, berdindu eta gainditu egingo duelako. Kosta ahala kosta, asmatu egin beharra dago¹.

Forma geometrikoek eta elementu naturalek bat egiten duten ingurunean, hiru jainko handiren irudia da tapiz honen muina, eta Fernand Légerrek *La Création du monde* balleteko dekoraturako egindako zirriborroan dago oinarrituta [1. ir.]. Ikuskizun hori, hain zuzen ere, Suediako Balletek 1923ko denboraldian Parisko Théâtre des Champs-Élyséesen aurkeztu zituzten proposamen berritzailetako bat izan zen. Era berean, ageri-agerian uzten du abangoardia historikoen nolako eragina izan zuten dantzaren munduan². Adierazpide artistiko horrek goraldia, berriztapena eta ospea lortu zituen XX. mendeko lehenengo herenean, neurri handi batean zenbait talenturen ekarpenak ikaragarriak izan zirelako: Isadora Duncan (1877-1927), Michel Fokine (1880-1942) edo Vaslav Nijinsky (1890-1950) dantzari eta koreografoak, besteak beste. Azken bi horiek 1909an Serguéi Diaghilevek (1872-1929) sortutako Errusiako Balletetako kide aktiboak izan ziren; konpainia horrek Parisko eszena irauli zuen, muntaketetan abangoardiako artista plastikoek, koreografoek eta musikariek parte hartzen zutelako, «erabateko artelanak» sortu nahian. Proposamen hori, ordea, ez da berez berritasuntzat hartu behar, Richard Wagner musikagileak XIX. mendeko erdialdean proposatu baitzuen, operako sorkuntzan bere helburu estetikoa zein zen azaldu zuenean. Dena dela, balleteko ikuskizunetan ezarri zenean, tutu erromantikoen mundua saiakuntzarako eremu ireki bihurtu zen ezinbestean.

1 Fernand Léger. «Ikuskizuna: argia, kolorea, irudi mugigarria, objektua-ikuskizuna» in *Bulletin de l'Effort moderne*, Paris, 1925. Hemendik ateratakoa: Léger 1990, 100. or.

2 Horri dagokionez, ikus Rovereto 2005.



1. Fernand Léger (1881-1955)
Munduaren kreazioa, c. 1923
(1963. urtean manufakturatua)
Artilea. 283 x 388 cm
Bilboko Arte Ederren Museoa
Inb. zenb. 82/2353

© Babestutako materiala

1920. urtean, Rolf de Maré (1888-1964) filantropo eta bildumagile suediarrek Ballets Suédois edo Suediako Balletak sortu zituen. Konpainiaren izenari eta bertako kideen nazionalitateari erreparatuz gero, nordikoak badira ere, taldearen ibilbidea Parisen garatu zela esan beharra dago. Hartara, 1920tik 1925era, Jean Börlin (1893-1930) koreografo eta dantzariaren zuzendaritzapeko konpainiak hogeitik gora ekoizpen eszenaratu zituen, eta, bertan, talentu handiko artistek parte hartu zuten: Théophile Alexandre Steinlen, Pierre Bonnard, Nils Dardel, Giorgio de Chirico, Francis Picabia edota Fernand Légerrek; baita musikagileek ere: Francis Poulenc, Arthur Honegger, Germaine Tailleferre, Cole Porter, Alfredo Casella, Erik Satie eta Darius Milhaudek, besteak beste. Hori dela eta, proposamen berritzaile bezain iradokigarriak sortu ziren, eta, bertan, modernotasun artistikoa, musikala eta koreografikoa ziren nagusi. Guztira, 2.758 antzeppen³ egin zituzten, euren egoitza nagusia izandako Parisko Théâtre des Champs-Élyséesen eskainitako ekitaldiak eta Europako zein AEBetako biretan bisitatutako eszenatokietan garatutako ikuskizunak kontuan hartuta⁴. Euren ibilbideko lehenengo hiru urteetan, zenbait lan eszenaratu zituzten: Espainian girotutako eta Isaac Albénizen musika zeukan *Iberia* (1920); Doménikos Theotokópoulos margolariaren estetikan oinarritutako *El Greco* (1920); eta Suediako herri doinu eta dantzetan oinarritutako balletak: *Nuit de Saint-Jean* (1920) edo *Dansgille* (1921). Era berean, exotismo nabariko zenbait ekoizpen ere azpimarratu behar dira: *Derviches* (1920); Claude Debussyren musika daukaten *Jeux* (1920) eta *La Boîte à Joux* (1921); Maurice Ravelen partitura daukan *Le Tombeau de Couperin* (1920); San Mateoren Ebanjelioko hamar birjinen parabolaren oinarritutako *Les Vierges Folles* (1920); *Maison de fous* aztoragarria (1920); eta saiakuntza-izaera handiko beste batzuk: *Les Mariés de la Tour Eiffel* (1921), *L'Homme et son désir* (1921) edo *Skating Rink* (1922). Azken lan horretan, gainera, Fernand Léger artistak lehen aldiz lan egin zuen Rolf de Maréren Suediako Balletekin.

«Ballet beltza» Parisko Théâtre des Champs-Élyséesen

Munduaren kreazioa [2. ir.] 1923ko urriaren 25ean sortu zen, eta lau sortzaileren arteko lankidetzaren emaitza izan zen [3. ir.]. Blaise Cendrars olerkariak (1887-1961) argumentua sortu zuen, Darius Milhaud musikagileak (1892-1974) jazz-kutsu nabariko partitura garatu zuen, Fernand Légerrek eszenografia zein jantziak diseinatu zituen eta Jean Börlinek koreografia sortu zuen. Parisen arte afrikarraren inguruko benetako sukarra bizi zutenean sortu zen ekoizpena, eta, XX. mendearen hasieratik⁵, grina hori zenbait artistak ere erakutsi zuten euren lanetan; esate baterako, Vlaminck, Matisse, Derain, Braque eta Picassok. Parisen (1907) eta Marseillan (1906 eta 1922) egindako erakusketa kolonialek ere kontinente afrikarraren bereizgarritasun kulturalak hobeto ezagutzeko aukera eman zuten. Arlo artistikoan ere, Paul Guillaumek 1919an⁶ antolatutako *Première exposition d'art nègre et d'art océanien* erakusketan gauzatu zen joera hori, baita Carl Einsteinen *Negerplastik* (1915) argitalpenean edo Marius de Zayasen *African negro art; its influence on modern art* (1916) irregularragoan ere. Izan ere, Einsteinen testu eruditua funtsezko ekarpena izan zen, zeresan erabakigarria izan baitzuen arte afrikarrak ordura arte izandako estatusa aldatzeko orduan, eta, horrez gain, kubismoa⁷ bezalako abangoardien defentsarako alegatutzat ere hartu zutelako. Beraz, ez da harritzekoa Fernand Légerrek *Negerplastik* [4.-7. ir.] ilustratzen zuten zenbait argazki erreferente moduan erabili izana, *Munduaren kreazioa* lanerako zirriborroak egin zituenean.

3 Antzeppen kopuruaren inguruko desadostasunak daude, iturriaren arabera. Horrela, bada, Fokine... [et al.] 1931 testuko proposamena 2.766 da; eta Häger 1989 testukoa, 2.758.

4 Horri dagokionez, nabarmendu behar da 1921ean Espainian egin zutela bira eta honako hiri hauetan egon zirela: Madril,artzelona, Valentzia, Valladolid, Bilbao, Santander, A Coruña, Ferrol, Ourense, Vigo, Pontevedra eta Santiago de Compostela. Euren bira espainiarrari buruz, ikus honako testu hauek: Baliñas 2006 eta Bilbao 2013.

5 Zenbait erakusketa kolektibo lotura estu horren adierazgarri dira erabat; esate baterako, 1916an Émile Lejeune margolariaren tailerrean *Lyre et Palette* izenburupean egindakoa. Bertan, Kisling, Matisse, Modigliani, Picasso eta Ortiz de Zárateen hogeita hamabost lan jarri zituzten erakusgai, hogeita bost eskultura afrikarrekin batera.

6 Geneva 2000, 36.-53. or.

7 Ikus Liliane Meffrerren sarrera-azterlana in Einstein 2002, 11.-25. or.



2. Fernand Légerrek diseinatutako esku-programa, Ballet Suediarrek interpretatutako *Munduaren kreazioa* balletaren estreinaldirako, 1923
Bilduma partikularra, Archives Charmet



3. Max Erlanger de Rosen (?-1961)
Munduaren kreazioa obrako lantaldea, c. 1924
Ezkerretik eskuinera: Blaise Cendrars, Rolf de Maré, Darius Milhaud, Fernand Léger eta Jean Börlin
Archives Blaise Cendrars
Inb. zenb. A.I.D. 3494, 366

Rolf de Marék eskatuta, Blaise Cendrarsek tradizio afrikarrek kondairan oinarritutako ballet honen argumentua sortu zuen. Dena dela, ez zen halabeharrezkoa izan olerkari hori aukeratzea, bere lanek oso lotura estua baitzeukaten gaiarekin, 1916an *Les Grands Fétiches* zein *Continent Noir* eta 1921ean *Antologie Nègre* argitaratu zituenean baieztatu ahal izan zen bezala. 1919. urtean, Jean Cocteau polifazetiko eta urratzailak esan zuen Cendrars bera zela «motor eta fetitxe beltzak nahasten zituen»⁸ modako exotismo berriko ordezkari onena. *Munduaren kreazioa* lanaren argumentua *Antologie Nègre*⁹ lanean sorrerari eta jatorriari buruz azaldutako fang kondairen uztarketan zegoen oinarrituta, eta bost koadro ditu osagai. Bere edukiak eta formatuak erabat baldintzatu zituen Darius Milhaudek konposatu zuen musikaren egitura eta Légerrek eszenografiarako nahiz jantziarako egin zituen diseinuak.

Cendrarsek¹⁰ idatzitako testuan adierazten den bezala, lehenengo koadroaren hasieran, eszena ilun dago, eta hainbat gorputz elkarri lotuta daude eszenatokian, sorreraren aurretiko anabasaren adierazgarri. Bien bitartean, tapizean irudikatutako hiru jainko erraldoiak, sorrerako Nazme, Medere eta N'kva jaunak, inguruan ari dira biraka, eta arao magikoak egiten dituzte. Bigarren koadroan, ordea, masa nagusia aztoratu egiten da, zuhaitzak hazten dira, euren hazietatik beste zuhaitz batzuk sortzen dira eta animaliak jaio dira¹¹, sorreraren erakusgarri eszena apurka-apurka argizatzen den bitartean. Hirugarren koadroan, hiru jainkoek apurka-apurka haien inguruan multzoa eratu duten izakiak dituzte inguruan. Multzoa ireki egiten da, eta masa informea asaldatzen duten aztikeria berriak egiten dituzte jainkoek. Sekoume gizona eta Mbongwe emakumea jaio dira¹². Elkar ezagutu eta aurrez aurre jartzen dira. Laugarren koadroan, bikoteak desiraren dantza egiten

8 Cocteau 1920. Bilduma honetan, Cocteauk 1919ko martxotik abuztura *Paris-Midi* egunkarirako idatzi zituen zenbait artikuluko agertzen dira.

9 Cendrars 2010, 23.-31. or.

10 Argumentua estreinaldiko eskuko egitarauan nahiz osteko beste iturri batzuetan erreproduzitu zuten. Kasu honetan, hemen erreproduzitutako testua hartu da erreferentetzat: Fokine... [et al.] 1931, 65.-66. or.

11 Dansmuseet – Musée Rolf de Maré, Stockholm, inb. zenb. 226., 264. eta 250.

12 Dansmuseet – Musée Rolf de Maré, Stockholm, inb. zenb. 246. eta 247. Ikus nolako antzekotasuna dagoen Sekoumeren zirriborroaren eta Einstein 2002 testuan erreproduzitutako 59. ilustrazioaren artean.



4. *Tshokwe* estatuatxoa, Angola
Egurra
Carl Einstein-en argitaratua. *Negerplastik*,
1915, 57. zenb.
Arte Ederretako Pushkin Museo Estatala, Mosku
Inb. zenb. II 2ª – 232



5. Fernand Léger (1881-1955)
Munduaren kreaizioa. Jantzi baten zirriborroa, 1923
Gouachea eta arkatza paperean. 31,5 x 24 cm
Musée national Fernand Léger, Biot, Frantzia
Inb. zenb. MNFL95002



6. *Baga* emakumezko estatuatxoa, Ginea
Egurra
Carl Einstein-en argitaratua. *Negerplastik*,
1915, 44. zenb.



7. Fernand Léger (1881-1955)
Munduaren kreaizioa lanerako maskara baten
zirriborroa, 1922-1923
Arkatza paperean. 27 x 21 cm
Musée national Fernand Léger, Biot, Frantzia
Inb. zenb. MNFL98025

du, eta N'guilak agertzen dira, taldea madarikatzen duten gizonezko eta emakumezko aztiak, alegia. Azken koadroan, multzoa lasaitu egiten da, bere mugimenduak moteltzen ditu eta talde txikietan sakabanatzen da. Bikotea musu batean isolatzen da, eta udaberria sortzen da.

Darius Milhaudek, Les Sixeko kideak¹³, forma musikala eman zion Blaise Cendrarsek proposatutako programari. Lankidetzat hori ez zen musikagileak Suediako Balletekin egindako lehenengoa, bi urte lehenago konpainia horrek Paul Claudelen olerkian oinarritutako *L'Homme et son désir* estreinatu baitzuen eta Milhaudek konposatu baitzuen 1918an¹⁴. *Munduaren kreazioa* lanerako, 15 minutu inguruko iraupena zeukan partitura egin zuen, bost ataletan zegoen banatuta (Préludea, Fuguea, Romancea, Scherzoa eta Amaiera) eta Cendrarsen argumentuaren soinu-gauzapena izan nahi zuen. Musikagileak berak bere oroitzapenetan azaldu zuen bezala, lan honek aukera aparta eman zion bete-betean aztertu zuen jazz generoko elementuak erabiltzeko, eta hamazazpi musika-tresna bakarlarirako orkestrazioa sortu zuen, Harlemeko jazz-orkestra izango balitz bezala¹⁵. Lan hau adi-adi entzun eta aztertuz gero, datu interesgarriak ateratzen dira. Batetik, ageri-agerikoa da musikagileak nolabaiteko izaera programatikoa eman nahi diola bere musikari. Bertan, hain zuzen ere, badirudi sorreraren aurretiko anabasa, floraren eta faunaren jaiotza edo gizonaren zein emakumearen sorrera fugan, romanzan eta scherzoan irudikatzen direla, hurrenez hurren. Era berean, oso deigarria ere bada nolako parekotasuna dagoen romanzako zenbait paisaiaren eta George Gershwinen urtebete geroago konposatutako *Rhapsody in Blue* lan ospetsuko apaingarri melodikoaren artean¹⁶. Nolanahi ere, Milhauden proposamena berritzailea bada ere, kritikarien ustez haren musika ez zen serioa, eta «askoz ego-kiagoa zen dantza-areto eta jatetxeetarako, antzokirako baino». Kontraesana dirudien arren, musikagileak berak azaltzen duenez, hamarkada bat geroago kritikari berberak *Munduaren kreazioa* bere lan onena zela adierazi zuten jazzaren filosofiari buruz idatzitako zenbait testutan¹⁷.

Jean Börlinek [8. ir.] koreografia sortu zuen. Dantzariak Stockholmeko Operako Ballet Eskolan ikasi zuen, eta 1902. urtean sartu zen bertan. Bere prestakuntza klasikoa bazen ere, saiakuntzaren aldeko apustu argia egin zuen. Faktore horrek, beraz, Suediako Balletetako zuzendari moduan garatu zituen proiektu guztien muinean izan zuen eragina. Halaber, beste faktore batzuek ere elikatu zuten bere espiritu sortzaile bezain berritzailea; esate baterako, 1906an Stockholmen Isadora Duncan dantzan ikusi izana edo Émile Jacques-Dalcroze pedagogoa ezagutu izana. Azken horrek, hain zuzen ere, mugimenduaren bidez musikaren saiakuntza sustatzeko metodo berritzailea asmatu zuen¹⁸. Hala ere, seguruenik, 1909tik 1912ra bitartean Diaghilevekin lan egin ondoren, Michel Fokinek Stockholmeko Errege Operako Balleta zuzentzea izan zen bere suspergarri nagusietakoa. Izan ere, Jean Börlin konpainia horretako kidea zen, jatorri errusiarreko koreografoa Stockholmera iritsi zenean, eta dantzariak eragin handia izan zuen bere maisuarengan, bere adierazpen batzuetan antzematen den bezala:

13 Les Six musikagile frantsesen elkartea zen, eta euren jarduera handieneko unea hogeiko hamarkadakoa izan zen. Taldearen izena horixe bazen ere, zazpi musikagilek osatzen zuten: Francis Poulenc, Arthur Honegger, Erik Satie, Georges Auric, Germaine Tailleferre, Darius Milhaud eta Louis Dureyk. Guztiek, Satiek eta Dureyk izan ezik, Suediako Balletekin lan egin zuten *Les Mariés de la Tour Eiffel* (1921) lanean. 1924. urtean, Satiek *Relâche* lanerako musika sortu zuen. Ekoizpen berritzailea zen, argumentua zein eszenografia Francis Picabiarenak ziren, ekitaldiarteko zinematografikoa René Clairrek egin zuen eta koreografia Jean Börlinena zen.

14 Darius Milhaudek balletetako musika-errepertorio interesgarria dauka. *Munduaren kreazioa* ez ezik, Jean Cocteauren argumentua duten bi ballet ere nabarmentzen dira: *Le Boeuf sur le toit* (1920) eta *Le Train bleu*. Azken ballet hori Diaghileven Errusiako Balletek estreinatu zuten 1924an, Coco Chanelek jantziak diseinatu zituen eta Pablo Picassok oihala egin zuen.

15 Milhaud 1974, 125. or.

16 *Munduaren kreazioa* lanaren eduki musikalarri dagokionez, testu honetan egindako azterketa zehatza nabarmentzen da: Mawer 1997, 145.-176. or.

17 Milhaud 1974, 128. or.

18 Häger 1989, 10. or.



8. Paul Colin (1892-1985)
Jean Borlin, 1925
 Koloretako litografia paperean. 123 x 82 cm
 Impr. H. Chachoin, Paris
 Bilduma partikularra, Archives Charmet

Jean Börlini buruz ditudan lehenengo oroitzapenak 1911koak dira. Garai hartan, balletak muntatzen hasi nintzen Stockholmeko Errege Operako trupearekin. Konpainia txikia bazen ere, talentu handiak zituen [...] Benetako aurkikuntza izan zen niretzat, eta, guztien artean, Jean Börlin alaitasun artistiko pertsonifikatua zen. Mutikoa zen artean, eta ez zuen osperik. Gogoan dut fauno gaztearena egiten ikusi nuela *Kleopatra* lanaren berremanaldian. Börlinek jauzi handietan gurutzatzen zuen eszenatokia, bere pisu osoarekin erori zen eta zoruan egin zuen herrestan bakanteen taldeen artean. Hori jitea hori! Benetako estasia! Gorputz ubelduaren sakrifizio fanatikoa, ahalik eta adierazgarritasun koreografiko handiena eskaintzeko. Sekulako ustekabea izan zen niretzat¹⁹.

1913. urtean, Börlin Stockholmeko Errege Operako bigarren dantzari izendatu zuten, eta, 1915ean, *Faun* edo *Bacchanal* izenburuak sortu zituen. Bertan, ageri-agerian zegoen Fokineren irakaskuntzek utzi zioten aztarna²⁰. 1918. urtean, lehenengo dantzaria izatea proposatu zioten, baina, geroxeago, konpainia utzi zuen, Rolf de Marérekin batera Suediako Balletak sortzeko. Fokinek ez ezik, beste batzuek ere aitortu zuten koreografo eta dantzari moduan zeukan talentua: Alexis Roland Manuel musikagile eta kritikari musikalak, Francis Picabiak, Jean Cocteauk, René Clair zinegileak²¹ edota Pierre Tugalek. Azken horrek, gainera, Rolf de Marérekin batera sortu zituen Parisko Archives Internationales de la Danse, 1931. urtean.

Munduaren kreaioa ez zen izan Börlinek kutsu afrikarreko dantzara egindako lehenengo hurbilketa. 1920ko martxoaren 25ean, dantzariak bakar-bakarrik eskaini zuen errezitaldia Parisko Théâtre des Champs-Élyséesen, eta, bertan, *Devant la mort*, *Danse céleste* eta *Sculpture nègre* lanak antzeztu zituen. Azken ekoizpen horretako musika Francis Poulencena zen, eta Paul Colinek berak sortu zituen jantziak. Colin marrazkilari emankorra zen, eta Josephine Bakerren *Revue Nègre* (1925) lanerako kartel ospetsua egin zuen, baita *Tumulte noir*²² izenburupean 1927an editatutako litografiaren albuma ere. *Le Figaro* edo *Le Menestrel* aldizkako

19 Fokine... [et al.] 1931, 148.-149. or.

20 Ibid, 156. or.

21 Jean Börlinek bi aldiz lan egin zuen René Clair zuzendariarekin. Suediako Balletek antolatutako *Relâche* (1924) ikuskizuneko 22 minutuko *Entr'acte* film laburrean parte hartu zuen, baita *Le voyage imaginaire* (1926) lanean ere. Modu berean, ageri-agerian geratu zen nolako harremana zeukan koreografoak abangoardiako zinearekin, *L'inhumaine* (1924) lanean parte hartu zuenean. Saiakuntzako filma zen erabat, Marcel L'Herbierrek zuzendu zuen, eta, bertan, Fernand Légerrek, Darius Milhaudek eta Suediako Balletek ere lan egin zuten.

22 Garai hartako prentsako zenbait artikulutan adierazten den bezala, badirudi muntaketa horiek inolako eszenografiarik izan ez zutela. Dena dela, Paul Colinek zirriborro bat egin zuen gutxienez, eta heliografatu moduan erreproduzitu zen testu honetan: Fokine... [et al.] 1931.

argitalpenetan argitaratutako zenbait kritikatan, dantzariak ikus-entzuleen gozamenerako erakutsitako originaltasuna, exotismoa eta «idolo-jarrerak» laudatu zituzten. Beraz, hiru urte geroago koreografoak garatu zuen lanaren aurrekari argia da *Sculpture nègre*. Jean Börlinek eta Rolf de Marék (eskultura afrikarren bilduma ere bazeukan, nonbait) Kongoko zenbait dantzari buruzko azterketa zehatza egin zuten *Munduaren kreazioa* lanerako, eta zenbait zine-konpainiari eskatutako film dokumental asko ikusi zituzten²³. Proposamen koreografikoaren emaitza liluragarria izango zen berez, baina are gehiago izan zen Fernand Légerrek dantzariei gizatasuna kendu zienean eta mugimenduan zeuden benetako forma geometriko bihurtu zituenean.

Fernand Léger eta Munduaren kreazioa

«Ballet beltz bakarra izango da. Munduan egin daitekeen ballet beltz bakarra da, eta generorako eredia izango da berez»²⁴. Gogotsu baino gogotsuago azaltzen zen Fernand Léger, 1922ko irailean Rolf de Maréri idatzi zion gutunean. Beraz, badirudi bere zenbait garaikideren antzera artistak berak ere oso gogoko zuela arte afrikarra. Edonola ere, hamarreko eta hogeiko hamarkadetan sortu zituen lanak gainetik berrikusiz gero, argi eta garbi dago hori ez zela hala izan inolaz ere, sasoi horretako lanetan gehien jorratutako gaiak makinismoa, hiria, giza irudia eta objektuen mundua izan zirelako²⁵. Izan ere, oso adierazgarria da ballet hau estreinatzen urte berean «L'Ésthetique de la Machine» argitaratu izana Alemaniako *Der Querschnitt* aldizkarian. Hori dela eta, *Munduaren kreazioa* ez da Légerrek oso gustuko zuen gaian egindako sarralditzat jo behar, bere suspergarri nagusiak honako hauek izan omen ziren-eta: Blaise Cendrarsen²⁶ zeukan adiskidetasun sakona, Rolf de Marék sortzaileei ematen zien askatasuna eta, horren ondorioz, horrelako ikuskizunak eskaintzen zizkion aukerak.

Hogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkaden artean, Fernand Légerrek harreman bizi-bizia izan zuen ikuskizunaren munduarekin. Besteak beste, artistak balletean, zinean, antzerkian eta operan lan egin zuen abangoardiako beste sortzaile batzuekin, eta bere ekoizpenaren zati interesgarria garatu zuen arlo horietan²⁷. Marcel L'Herbierren *L'Inhumaine* (1924) filmeko laborategirako dekoratuak egin zituen, eta, film horretan, Suediako Balletek ere parte hartu zuten. Dudley Murphyekin batera, oso saiakuntzazkoa zen *Le Ballet mécanique* (1924) filma zuzendu zuen, eta bertako musika George Antheilek sortu zuen. Bestetik, Abel Gancek zuzendutako *La Roue* (1923) filmerako kartelak ere egin zituen; musika Arthur Honeggerrena zen eta Blaise Cendrars izan zen laguntzailea. Horrez gain, azpimarratu beharra dago Hans Richterrek zuzendutako eta Kenneth Macphersonen zein Peggy Guggenheimek ekoizitako *Dreams that money can buy* (1944-1946) lanean ere parte hartu zuela. Bertan, gainera, honako hauexek ere esku hartu zuten: Alexander Calder, Marcel Duchamp, Max Ernst, Darius Milhaud, Man Ray eta Victor Vicasek, baita musikaz arduratu ziren John Cage eta Edgar Varèse ere. Antzerkiaren arloan, ekarpen nabariak egin zituen Jacques Chesnaisek zuzendutako *Match de boxe* (1934) txotxongilo-ikuskizunean, baita *Naissance d'une cité* (1937) «erabateko ikuskizunean» ere. Horretarako, eszenografia eta jantziak egin zituen, eta Darius Milhauden nahiz Arthur Honnegerren zenbait abesti ere agertzen ziren. Era berean, Darius Milhauden *Bolivar* (1950) opera ere izan zen beste proiektu interesgarri bat, baita Légerrek genero horretan egindako lan urrietakoa ere.

23 Näslund 2009, 332. or.

24 1922an Fernand Légerrek Rolf de Maréri idatzi zion gutunaren testu-zatia. Fernand Légerren artxiboan dago gordeta. Judi Freemanek aipatzen du testu honetan: Norman Baer 1995, 106. or.

25 Nahiz eta Légerrek arte primitiboaren inguruan zeukan interesa bere margolanetan antzematen ez den, esan beharra dago 1930etik 1936ra *Le masque nègre* tapiza ehundu zela (Musée national Fernand-Léger, Biot). Légerrek *Munduaren kreazioa* lanerako egin zuen diseinuan zegoen oinarrituta, eta tapiz honen aurrekaria dela esan daiteke.

26 Blaise Cendrarsen eta Fernand Légerren arteko harremanari eta lankidetzari dagokionez, ikus Biot/Niza/Vallauris 2009, 15.-33. or.

27 Horri dagokionez, 1995ean Musée national Fernand Légerren antolatutako *Fernand Léger et l'espectacle* erakusketa nabarmendu beharra dago. Ikus Biot 1995.

Balletaren arloan ere, Légerrek bere sormena askatu ahal izan zuen bete-betean, honako lan hauetarako egin zituen dekoratuetan eta jantzietan antzeman daitekeen bezala: Vittorio Rietiren musika eta Serge Lifarren koreografia zeuzkan *David Triomphant* (1936); Sergei Prokófíieven partitura eta Serge Lifarren koreografia zeuzkan *Le pas d'acier* (1948); edo Maurice Jarrerren musika eta Janine Charraten koreografia zituen *L'Homme qui voulait voler* (1952). Edonola ere, dantzaren munduarekin zeukan lotura hogeiko hamarkadan hasi zen Rolf de Maréren Suediako Balletek egindako *Skating Rink* (1922) ekoizpenean. Arthur Honeggerrek musika jarri zion lan horri, eta bi urte lehenago *Le Mercure de France* argitalpenean editatutako Riccio Canudoren olerkian zegoen oinarrituta. Canudo saiakeragilea eta futurismora atxikitako kritikaria zen, eta patinaje-pistan garatutako irudien fluxu etengabea proposatzen zuen bere olerkian. Gizonak, emakumeak, zoroak, langileak, jostuntxoek eta karikatura moduan tratatutako beste gizaki batzuek gizakien irudikapen sinbolikoari forma ematen dioten pertsonaien galeria osatzen dute. Légerrek eszenografia zein jantziak egin zituen, eta, artistak berak azaldu zuen bezala, muntaketa horretan honako hauxe izan zen bere helburua: «kolore garbiak gainazal lauetan ezartzeko teknikaren bidez bakarrik, ahalik eta bizitasun handiena lortzea»²⁸. Horrela, bada, lengoaia kubistak, kolorearen erabilera murriz bezain bakunak eta proposamen osoaren izaera sintetiko bezain berritzaileak ikus-entzuleak eta kritikariak banatu zituzten. Nolanahi ere, estreinaldiaren osteko denboraldi guztietan programatu zuten *Skating Rink*, eta berrogeita hamar antzeppen egin ziren.

Munduaren kreazioa Fernand Légerrek Suediako Balletekin egin zuen bigarren lankidetzat izan zen. Aldez aurretik, artistak berak argumentua idatzi zuen Blaise Cendrars olerkariarekin lan egin zuen *J'ai tué* (1918) laneko eta gerraren aurkako *La fin du monde, filmée par l'Ange Notre-Dame* (1919) eleberriko ilustraziogile moduan. Hain zuzen ere, XX. mendeko diseinu grafikoaren historiako mugarri handienetakoa izan zen eleberririk hori. Bestetik, *Munduaren kreazioa* egin ostean, Darius Milhaudekin lan egiten hasi zen, eta, geroago, lehen aipatutako zenbait proiektutan ere lan egin zuen berarekin. Izan ere, musikagileak oso-oso pasadizo argigarriak azaldu zituen bere oroitzapenetan, *Munduaren kreazioa* lanaren sorrerari eta Légerren ideiei dagokienez:

Légerrek arte primitibo beltza interpretatu nahi izan zuen, eta oihalean nahiz dekoratuetan margotu zituen boterearen eta iluntasunaren adierazgarri ziren jainko afrikarrak. Beretzat, bere lanak ez ziren inoiz hain beldurgarriak. Oihalaren zirriborroa eman zidan, argitsuegia eta atseginetia zela uste zuelako. Beltza zen, eta marroi ilunaren gainean eginda zegoen. Eufemismo zoragarria benetan! Gasez puztutako puxikak erabili nahi zituen, loreak, zuhaitzak eta era guztietako animaliak irudikatzeke, eta, sorreran bertan, hegan egiten hasi behar ziren. Hala ere, ez zegoen halakorik egiterik, gas-erreserben instalazio konplexua jarri behar izango zelako eszenatokiko izkina bakoitzean eta puzten ari ziren puxiken zaratak musika estaliko zuelako. Azkenean, Légerrentzat nahikoa izan behar izan zen dantzari afrikarrek euren zeremonia erlijiosoetan jantzen zituzten bezalako animalia-jantzietan inspiratzea²⁹.

Pasarte horretatik, zenbait ideia interesgarri atera daitezke. Batetik, Légerrek ekoizpen honetarako eragin ilun bezain beldurgarria lortu nahi zuela nabarmentzen du. Era berean, argi eta garbi azaltzen du artistak oso-oso gustuko zuela saiakuntza eszeniko eta teknikoak, elementu puzgarri eta mugigarriak erabili nahi zituen-eta. Ideia hori bete-betean gauzatzetik izan ez zuenez, berriro zehaztu behar izan zuen. Dena dela, ezerean gaintetik, hari eta egokiena aurkitu arte formulak etengabe bilatu eta asmatu egiten dituen artista-irudia da nagusi. Beharbada, horrexegatik ez da hain harrigarria hainbat zirriborro egin izana ekoizpen

28 Fokine... [et al.] 1931, 180. or.

29 Milhaud 1974, 125. or.



9. Fernand Léger (1881-1955)
Munduaren krazia, c. 1923
 Bilboko Arte Ederren Museoa
 Xehetasuna



10. *Baulé* maskara, Boli Kosta
 Egurra. 70 x 28 x 27 cm
 Carl Einstein-en argitaratua. *Negerplastik*, 1915, 89. zenb.
 University of Pennsylvania, Museum of Archaeology and Anthropology
 Inb. zenb. AF 5117

honetako eszenografiarako zein jantziarako. Hain zuzen ere, zirriborro horiek zenbait bildumatan daude gordeta³⁰.

Bilboko Arte Ederren Museoko tapiza egiteko orduan, Légerrek *Munduaren krazia* laneko eszenografiarako egin zituen *gouache*etako bat hartu zen erreferentetzat. Bertan, hiru jainko sortzaileak, Nazme, Medere eta N'kva, agertzen dira, eta, euren atzean, hodeiak, mendiak, ilargia nahiz izarrak daude ikusgai. Hiru jainko horiek bost eta sei metro arteko altuera zeukaten irudi mugigarri moduan sortu ziren, eta badirudi zenbait dantzarik manipulatu behar zituztela. Faktore horren bidez, ageri-agerikoa da zergatik egin zituen Légerrek irudi horien zirriborro bereziak³¹. Izan ere, ia-ia eskultorikoak diren arren, ez dira dekoratuaren osagai, mugitu eta lanaren argumentuan funtsezko zeregina garatzen duten pertsonaiak baitira. Lehen esan dugun bezala, Légerrek zenbait eskultura afrikar erabili zituen eredu moduan bere pertsonaiak sortzeko orduan, eta faktore hori argi eta garbi igartzen da jainko baten zezen-buruaren eta Baulé etniako zenbait maskararen [9. eta 10. ir.] artean dagoen antzekotasunean. Bestetik, Légerren behin betiko proposamena tapizean agertzen dena izan bazen ere, artistaren prozesu sortzailearen eta ideia-aldaketen erakusgarri diren zenbait marrazki eta *gouache* ere badaude. Cendrarsen argumentuan hiru jainko aipatzen badira ere, ez du euren itxurari buruzko inolako informaziorik zehazten. Hori dela eta, artistak erabateko askatasuna izan zuen haien itxura nolako izango zen aukeratzeko orduan. Izan ere, MoMAko bildumako 1922ko marrazki batean [11. ir.], kontzeptu

30 Bilduma handiena Stockholmeko Dansmuseeten dagoen arren, zenbait zirriborro ere badaude beste museo batzuetan: Bioteko Musée national Fernand-Léger, New Yorkeko Museum of Modern Art eta Pariseko Bibliothèque-Musée de l'Opéra delakoetan, hain zuzen ere. Horrez gain, Frantziako, Italiako eta AEBetako bilduma partikularretan ere badaude.

31 Dansmuseet – Musée Rolf de Maré, Stockholm, inb. zenb. 244 eta 245. New Yorkeko MoMAn ere, arkatzez egindako jainkoaren marrazkia dago (inb. zenb. 314.1980).



11. Fernand Léger (1881-1955)
Munduaren kreaioa. Agertokirako zirriborrea, 1922
 Arkatza paperean. 21 x 27 cm
 Museum of Modern Art, New York
 John Pratten dohaintza
 Inb. zenb. 342.1949

tematiko berbera agertzen da, hau da, hiru jainko daude, eta mendiak, hodeiak, ilargia nahiz izarrak dituzte atzeko aldean. Dena dela, jainkoen itxura zeharo desberdina da³². Stockholmeko Dansmuseeteko bildumako akuarela (inb. zenb. 241), ordea, azken proposamenetik hurbilago dago, bertako idi-burudun jainkoa ezin hobeto zehaztuta dagoelako eta gainerako biak euren forma zuzen eta kurbo bereizgarrien iragarpenera direlako.

Okrearen eta beltzaren erabilera ugaria eta urdinaren zein zuriaren unean uneko ukituak eszenografia honen muinaren ezaugarri bereizgarriak dira, eta kontraste nabaria egiten dute hegaztiak bezalako zenbait animalien jantzi koloretsuekin. Légerrek hainbat eta hainbat jantzi-zirriborro marraztu zituen ekoizpen honetarako³³, eta, berriro ere, artistak garatutako lan xehe bezain irudimenezkoaren adierazgarri ezin hobeak dira. Hartara, Jean Börlinen zuzendaritzapeko konpainiako dantzariak, lengoia kubistaz diseinatutako eszenografiaren eta jantzien³⁴ babespean, honako zeregin hauek bete zituzten: kakalardoak, tximinoak, txori tropikalak, izaki arkaikoak, aztiak, jainkoak, gizonak eta emakumeak. Horrez gain, Légerrek eta Blaise Cendrarsek eszenaratzeko zenbait ohar ere idatzi zituzten. Bertan adierazten zutenez, izaera solemne bezain zeremoniatsua

32 Gauza bera gertatzen da 1923ko aurretiazko beste marrazki batekin eta oihalerako egindako zirriborro batekin (inb. zenb. 239b). Biak Stockholmeko Dansmuseeteko bildumakoak dira.

33 Batzuk lehenago aipatu eta ikusi ditugu (8.-12. ir.).

34 Dekoratuak Marcel Guérinek margotu zituen, eta jantziak Marie Muellek egin zituen. Azken horrek, gainera, lehenago ere lan egin zuen Errusiako Balleten zenbait ikuskizunetan. Ikus Häger 1989, 189. or.

izan behar zen nagusi, eta dekoratu mugigarriak zein pertsonaiak lekualdatzean eszenan bertan sortutako mugimendua etengabea izan behar zen. Halaber, argiztapen eszenikoa aldagarria izan behar zen, argilunen jokoa suspertu behar zuen eta inoiz ez zen erabateko argiztapenik egon behar³⁵. Horren guztiorren ondorioz, Légerren kontzeptu eszenikoa sustatu zen, eta, bertan, aretoko mugiezintasunak, iluntasunak zein isiltasunak kontrastea egin behar zuten eszenako argi, mugikortasun eta biziarekin. Era berean, nabarmendu behar da Légerren zirriborroak nahikoa ospetsuak zirela, batzuk *L'Œuvre* eta antzeko egunkarietan erreproduzitu zituztelako. Bertan, gainera, ikuskizuna «ballet kubista» izan zela adierazi zuten. Horrez gain, *La Danse* aldizkariak 1924ko azaroan eta abenduan argitaratutako alean ere erreproduzitu zituzten, eta, bertan, zenbait diseinu tartekatu zituzten sortzaileen argazki batekin eta Milhau den partituraren eskuizkribuaren pasarte batekin. Halaber, *Der Querschnitt* aldizkari alemaniarrek ere txori baten eta emakumearen diseinuak erabili zituen 1928ko urtarileko eta uztailleko aleetako azaletarako.

Munduaren kreazioa proiektuan, Légerrek ikuskizuna ikuspegi eszeniko eta tekniko beste era batera sortzeko saiakuntzak egin ahal izan zituen. Izan ere, bere lanak 1924an Friedrich Kieslerrek Vienan³⁶ antolatutako *Internationale Ausstellung neuer Theatertechnik* erakusketan jarri zituzten ikusgai. Gainera, ballet hori ezin hobeto egokitzen zen iraupen laburreko ikuskizun azkarraren kontzeptura, geroxeago artistak berak 1925ean idatzi zuen testuan bultzatu zuen bezala: *Ikuskizuna: argia, kolorea, irudi mugigarria, objektua-ikuskizuna*. Bertan, argi eta garbi azaldu zuen oso gustuko zuela lan hori, eta, horrez gain, Rolf de Maréren ausardia ere laudatzen zuen, proposamen berritzaileak sustatzen zituen-eta:

Munduaren kreazioa» balleta (ballet beltza) onartzean, ikus-entzuleei lehen aldiz eszena benetan modernoa eskaintzen ausartu da, baliabide teknikoak dagokionez, behintzat. Arrakastak bere ahalegina saritu du, eta ikus-entzuleek irimo, zuzen jarraitu diote, kritika ofizial gehienak iritzi hutsaletan banatzen ziren bitartean³⁷.

Légerren diseinuak ezin ederragoak ziren, eta, neurri handi batean, euren banakako nortasuna eta giza esentzia ere kentzen zizkieten dan-tzariei, eszenatikian lekualdatzen ziren forma hutsak izan zitezten. Gurari hori berak idatzitako zenbait aipamenetan azaltzen da: «giza materiala den gizabanakoa desagerraraztea. Asmatutako eszena sortzea. Giza materiala agertzen da, baina objektuak edo dekoratuak besteko ikuskizun-balioa du»³⁸. Beraz, aldaketa handia proposatzen du, ordura arte dantzaren munduan ezarritako ereduaren aldean. Bertan, hain zuzen ere, izar handien ohiko nagusitasuna dantzari koreografoaren bidez ordezkatu behar zenez, ikuskizunaren osagai bihurtzen zen, eta dekoratu mugigarriaren zeregina onartu behar zuen. Ekoizpen horren ezaugarriak esker, bere ideiak gorpuztu ahal izan zituen, eta, neurri handi batean, modu grafikoan irudikatuta geratu ziren, tapiz hau egiteko oinarri moduan erabilitako *gouache* bezala [12. ir.].

Zirriborro eszenografikotik tapizera

Tapiza tamaina handiko oihala da, eta ehungintzako bi elementu eskuz gurutzatzean sortzen da: irazkia eta bilbea. Irazkiak luzetarako eta tindatu gabeko artilezko zenbait hari tenkatu ditu osagai; eta bilbeak, irazkiaren hariak estali eta ezkutatu egiten dituzten zeharkako eta koloretako hariak. Tindatutako artilezko hari horien konbinazio ugariak bitartez, amaituta dagoenean piezan bertan agertuko diren apaingarriak edo apaingarria egiten dira. Tapizak egiteko zenbait teknika daude, eta, euren artean, ehungailu bertikalean oi-

35 «Notes sur la réglementation de la mise en scène» in *Fokine...* [et al.] 1931, 66. or. Era berean, Geneva 2000, 94. or. Bertan, hain zuzen ere, ikuskizuneko argiei buruzko ohar zehatz-zehatzak agertzen dira, eta Blaise Cendrarsen eskuizkributik ateratakoak dira.

36 Katalogoan ez ezik (Viena 1924), zenbait artikulutan ere islatu zen zeinen garrantzitsuak ziren Légerren proposamenak; esate baterako, 1925eko uztaillean *Der Sturm* aldizkarian argitaratutakoa. Ikus Dolbin 1925.

37 Léger 1990, 104. or. Hementxe argitaratutakoa: *Bulletin de l'Effort moderne*, Paris, 1925.

38 *Ibid.*, 102. or.



12. Fernand Léger (1881-1955)
Munduaren kreazioa lanerako zirriborroa, 1922
 Gouachea paperean. 43 x 58,7 cm
 Bilduma partikularra

narritutako goiko irazki-hariarena nabarmentzen da, baita irazkia horizontalean banatu eta tapizgileari ehungailuaren aurrean eserita lan egiteko aukera eskaintzen dion beheko irazki-hariarena ere. Halakoetan, pedal edo kalken bidez mugitzen ditu irazki-hariak, eta eskuez ehuntzen du. Azken teknika hori, hain zuzen ere, Aubussonen (Frantzia) erabili ohi zutena denez, tapiz hau egiteko ere erabili zuten³⁹. Tapiza egiteko orduan erabiltzen den eredia kartoia da, eta irazki-harigileak hori hartzen du erreferentziatzat. Hari egokiak hautatu, konbinatu eta ehundu ondoren, artistak proposatutako apaingarriak egingo ditu.

XX. mendean, aldaketa handiak gertatu ziren tapizaren artean, eta, besteak beste, Antoine Marius Martinek (1869-1955) sustatu zituen. 1917tik 1930era, Aubussongo L'École nationale d'Art décoratifeko zuzendaria izan zen. Bere ekarpen⁴⁰ handienen artean, honako hauexek nabarmenduko ditugu: kolorea erabiltzeko mugak, hari lodiagoen erabilera edo zenbakidun kartoiaren sistemaren prestaketa, koloreek kode zifratu bana eduki zezaten. Era berean, Marie Cuttoliren (1879-1973) lana ere nabarmendu beharra dago, artista handiak konbentzitu zituelako, euren sorkuntza-lanak tapizean irudikatu zituzten: Picasso, Matisse, Braque, Miró, Le Corbusier edo Léger bera. Horrela, bada, arte horrek lotura handia izan zuen sorkuntza garaikidearekin⁴¹. Hala ere, inolako zalantzarik gabe, Jean Lurçat (1892-1966) izan zen XX. mendeko bigarren herenean tapi-zaren berpizkundearen bultzatzaile nagusietakoa. Sortzailea 1937an finkatu zen Aubussonen, eta, bertan,

39 Horrelako piezak egiteko gehien erabiltzen diren materialak kotoia, artilea edo lihoa dira irazkirako; eta tindatutako artilea nahiz zeta, bilberako. Aubussongo tapizetako teknikari dagokionez, ikus Fadat 1992, 64.-74. or.

40 Ibid., 45. or.

41 Era berean, zenbait ekitaldik izandako zeresana azpimarratu behar da; esate baterako, Fernand Légarren partaidetza izan zuen Parisko 1925eko *Arte Apaingarrien Erakusketa*. Era berean, De Stijl bezalako abangoardiako mugimenduekin lotutako ekarpen handiak ere hartu behar dira kontuan, Bauhaus bezalako eskolena ere bai. Bertako ehundegia Gunta Stölzlek zuzentzen zuen, eta proposamen berritzaile bezain iradokigarriak sortu zituen.

François Tabard maisu irazki-harigilea ezagutu zuen. Harekin batera, bere ideia berritzaile batzuk jarri zituen abian; esate baterako, bilberako zein irazkirako hari lodiagoak erabiltzea, kolore distiratsu eta biziagoak erabiltzea edo zenbakidun kartoak erabiltzea. Era berean, Association des Peintres Cartoniers de Tapisserie ere sortu zuen 1947. urtean, Denis Majorel galeristarekin batera. La Demeure galeria zeukan Parisen, eta Aubussongo sorkuntza-lan berrien erakusleiho aparta izan zen⁴².

Bere lan-ibilbide luzean, Fernand Léger artistak lotura estua izan zuen arte apaingarrien munduarekin⁴³. Izan ere, bere idazkietan adierazitako zenbait ideiatan, arkitektoen nahiz artista plastikoen arteko lankidetzat defendatzen zuen, beirateen, mosaikoen, freskoen edo tapizen sorreraren bidez «zenbait eraikinen soiltasun itzaltsua suntsitu» zitekeen-eta⁴⁴. Ideia horiek hainbat proiektutan gorpuztu ziren; esate baterako, berrogeita hamarreko hamarkadan honako eraikin hauetarako diseinatutako beirateak: Audincourteko Sacré Cœur eliza (Frantzia), Courfaivreko eliza (Suitza) edo Caracaseko Unibertsitate Hiriko Liburutegi Nagusia. Era berean, berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetan ere, honako lan hauek egin zituen: Assyko Notre-Dame-de-Toute-Grâce elizako fatxadako mosaikoak (Frantzia), Bastogneko Mémorial du Mardassongo kriptatua (Belgika), Alfortvilleko Gaz de Franceko planta (Frantzia), Caracaseko Unibertsitate Hiriko hiru dimentsioko horma-irudi arranditsua edo Saint-Lôko ospitalea (Frantzia).

Halaber, Légerren hainbat eta hainbat diseinu ere eraman zituzten tapizetara. Dena dela, nabarmendu behar dugu asko eta asko artista hil ondoren egin zirela Nadia Léger (1904-1983) emaztearen baimenaz. Ia-ia gehienak Aubussongo nahiz Felletingo manufacturetan egin zituzten, leku horiek ehungintza-tradizio handikoak ziren-eta⁴⁵. Hartara, besteak beste, honako hauexek egin ziren Aubusson-Felletingo Pinton Frères manufacturetan: *Les Constructeurs à l'aloès* (1951), *Les Constructeurs sur fond bleu* (c. 1954), *Formes sur fond gris* (c. 1957), *Peinture murale ou Composition murale* (1957), *Formes sur fond blanc* (c. 1960), *Peinture Murale* (c. 1960), *Formes sur fond gris* (c. 1960), *Sao Paulo, La Danse* (c. 1960), *Oiseaux Blancs sur fond bleu* (1962), *Ciel de France* (1962) eta *Les Baigneuses* (1970). Horrez gain, Aubussongo Tabard Frères et Soeurs tailerrean, Légerren diseinuetan oinarritutako tapiz ugari ere egin zituzten, eta, euren artean, honako hauexek nabarmendu behar dira: *Nature morte à l'étoile polychrome* (1951), *Composition à la figure* (c. 1954), *Les Femmes au perroquet* (1961), *La Grande Parade* (1961-1962), *Composition murale* (1962), *Nature morte aux pommes* (1962), Paul Éluarden (1895-1952) olerkian oinarritutako *Liberté, j'écris ton nom* (1963), *Composition au médaillon* (1965) eta *Plante noire* (1962-1970)⁴⁶. Gainera, tailer horretan ere, tapizean irudikatu zuten Fernand Légerrek *Munduaren kreazioa* lanerako sortu zituen zirriborro eszenografikoetako bat.

Denise Majorelek Aubussongo tapizgintza sustatu zuen bete-betean, Parisen zeukan galeriatik, eta funtsezkoa izan zen tapiza bera sorkuntza artistiko garaikiderako euskarri eta bitarteko moduan biziberritzeko orduan⁴⁷. Hain zuzen ere, Légerrek hogeiko hamarkadan *Munduaren kreazioa* laneko eszenografiarako egin zuen *goucheko* apaingarria pieza batean ehuntzeko eskatu zuen. Horrela, bada, 1962tik 1971ra⁴⁸, sei ale ehundu ziren. Lehenengoa ezin izan da aurkitu, eta 1962an egin zen. Bigarrena 1963an egin zen, eta, 1969an, Nadia Légerrek

42 Ikus «Les années Lurçat et de la Seconde Guerre Mondiale» in Guinot 2009, 87.-96. or.

43 Horri dagokionez, 2002an Musée national Fernand-Légerrek antolatutako *F. Léger et les arts décoratifs* erakusketa nabarmendu beharra dago. Ikus Biot 2003.

44 Léger 1990, 86. or. Testu hori artistak 1952an La Maison de la Pensée française emandako hitzaldian agertzen da, eta honako hauxe izan zen bere izenburua: «La peinture moderne devant le monde actuel». Gainera, bertan adierazi zuenez, «tapizgintza bete-betean bultzatu da aspaldi honetan. Beraz, agerikoa da bidea erabat irekiko dela». Baieztapen horren arabera, argi eta garbi dago tapizak zeresan handia lortu zuela sorkuntza garaikidearekin lotutako adierazpide moduan.

45 Bere historiari buruz, ikus Tapisserie... 1983, Fadat 1992 eta Guinot 2009, besteak beste.

46 Aipatutako datak aurkitutako zenbait alerenak dira. Nolanahi ere, euretako zenbaitetan ale bat baino gehiago ehundu zirela eta zenbait denbora-tartetan egin zirela kontuan hartuta, euren datak aldatu egin daitezke.

47 Denise Majoreli buruz, ikus Denizeau 2008.

48 Biot 2003, 50. or.



13. Fernand Léger (1881-1955)
Munduaren kreazioa, c. 1923
Bilboko Arte Ederren Museoa
Tailerraren monogramadun xehetasuna
Aubussongo Tabard, Frantzia

zein Georges Bauquierrek dohaintzan eman zioten Musée national Fernand-Légerri⁴⁹. Hirugarrena urte berean ehundu zen, eta Bilboko Arte Ederren Museoko bilduman dago⁵⁰. Laugarrena 1970ekoa da, eta Moskuko Arte Ederren Pushkin Museo Estatalarena da. Bosgarren eta seigarren aleak 1971. urtean ehundu ziren, eta, 2001ean zein 2005ean, New Yorken eta Parisen atera zituzten enkantera, hurrenez hurren. Sei tapizak Aubussongo Tabard Frères et Soeurs manufakturan egin zituzten. Familia-negozio hori XVII. mendean jarri zuten abian⁵¹, eta «T A» letrek osatutako tailerraren marka Bilboko tapizaren ezkerreko beheko angeluan daude ikusgai [13. ir.]. Légerren aleak ez ezik, tailerrak beste zenbait artista ospetsuren diseinuetan oinarritutako piezak ere sortu zituen berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkaden artean: Joseph Albers, Sonia Delaunay, Le Corbusier, Jean Arp, Jean Cocteau, Wassily Kandinsky, Jean Lurçat eta Victor Vasarely, besteak beste.

Munduaren kreazioa laneko eszenografiarako zirriborro nagusia Stockholmeko Dansmuseeteko bilduman dago gordeta (inb. zenb. 240). Edonola ere, ez zen hori izan tapizak egiteko orduan erreferente moduan erabili zena. Lehen esan dugun bezala, Légerrek ezin konta ahala marrazki egin zituenez, artistaren prozesu sortzailearen erakusgarri dira, baina, horrez gain, oso antzeko zirriborroak eta jantzi-marrazkiak ere egin zituela adierazten digute. Izan ere, tapiz hau eta serieko beste tapizak ehuntzeko orduan, 2002an New Yorken enkantean jarritako *gouacheko* apaingarria erabili zen [12. ir.]. Funtsean, bi zirriborroak antzekoak badira ere, gaineratik aztertuz gero, alde esanguratsuak daude, eta tapizean bertan islatzen dira. Esate baterako, oso-oso nabaria da apaingarri geometrikoez atondutako eta Dansmuseeteko *gouachean* irudikatutako bi zerrenda bertikalak ez daudela eta aldaketa txikiak egin direla hiru jainkoen nahiz hodeien koloreetan zein formetan. Bestetik, tapizek markoa izango balitz bezala eszena errematatzen duen banda fin beltza eta artistaren «F. LEGER» sinadura dituzte ezkerreko beheko angeluan. Zirriborroetan, ordea, ez dira xehetasun horiek agertzen.

49 Ibid., 70. or.

50 Tapizaren atzeko aldeko ezkerreko beheko angeluan, ale-kopuruaren marka dago ikusgai: 3/6.

51 Guinot 2009, 120. or.

1970. urtean, Bilboko Arte Ederren Museoak *Munduaren kreazioa* tapiza erosi zion artistaren alarguna zen Nadia Légerri. Lan hori museoko arte modernoaren atala irekitzeko antolatutako erakusketan jarri zen ikusgai. Sasoi hartako prentsan adierazi zuten bezala, 1970eko irailean Bilbon egindako Diputazio Probintziales-tako Kultura Erakundearen IV. Batzarraren esparruan garatu zen ekitaldi hura. Harrezkero, pieza hori museoko bilduma iraunkorrean dago, eta, oro har, arte garaikidearen atalean miretsi daiteke. Dena dela, bere lengoia modernoagatik, autoretzagatik, kolorengatik edo teknikagatik lan horrek ikus-entzuleen artean sorrarazten duen interesetik haratago, oso-oso kontuan hartu behar dugu askoz gehiago dagoela bere atzean.

Légerren tapiz honek hogeiko hamarkadako Parisera garamatza. Bertan, hain zuzen ere, Rolf de Maré bezalako ameslariei eta irakinaldi sortzaileari esker, erabat saiakuntzazkoak ziren ikuskizunak sortu ahal izan ziren. Jean Börlinen, Blaise Cendrarsen, Fernand Légerren eta Darius Milhauden talentuek bat egin zuten dantzaren historiako mugarriztat jotako lan honetan. Neurri handi batean, Suediako Balletek bazekiten nolako zeresana zeukaten eta honakoa zioten eurei buruz: «ausart bakarrak gara... bizitza garaikideko ordezkari bakarrak... akademizismoaren benetako aurkari bakarrak... iraultza barreiatuko dugu, eta, bertan, ohiturak suntsitu eta asmamena sustatuko dugu haien orde»⁵². Ideia horiek, hain zuzen ere, bost urteko ibilbidean sortutako hogeit bat ekoizpenetan islatu ziren. Bestetik, oso originalak ere bazirenez, azken hamarkadotan dantzaren historialariak ez ezik, musikologoak eta artearen historialariak ere hasi dira konpainia horren ekoi-zpena ikertzen⁵³. Era berean, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, bere muntaketa batzuk berrerratu eta eszenaratu egin dira; eta, euren artean, *Munduaren kreazioa*⁵⁴. Beraz, agerikoa denez, Suediako Balleten proposamenek interes handia sortzen dute oraindik. Fernand Légerren beraren esanetan, gainera, erakunde horrek «egiaztatu egin zuen bazegoela ohiko arauetatik aldentutako eta ikus-entzuleek onartzeko moduko ikuskizun ausarta sortzerik. Arriskatu besterik ez zegoen»⁵⁵.

52 La Danse 1924.

53 1964an, tapiz hau ehundu zenetik urtebete igaro zenean, *Les Ballets Suédois 1920-1925* atzera begirako erakusketa egin zen Parisko Théâtre des Champs Élyséesen. Harrezkero, erakusketa askotan, oso-osorik edo zati batez islatu da dantza-konpainia horren ibilbidea.

54 1990eko hamarkadaz geroztik, Vaslav Nijinskyk, George Balanchinek eta Jean Börlinek koreografiatutako zenbait ikuskizun berrerratu dituzte Millicent Hodsonen eta Kenneth Archerrek. Hain zuzen ere, Jean Börlinen ballet hauek berreskuratu dira: *Derviches*, *Skating Rink*, *Within the Quota* eta *La Création du monde*. Azken hori Genevako Ballet du Grand Theatrek estreinatu zuen berriro 2000. urtean. Era berean, 2012an, Kongoko Faustin Linyekula koreografoak eta Lorraineko Centre chorégraphique national-Balletek *La Création du monde 1923-2012* eszenaratu zuten.

55 Fokine... [et al.] 1931, 179. or.

BIBLIOGRAFIA

Baliñas 2006

Maruxa Baliñas. «Los ballets suecos : el más hermoso espectáculo y el de una mejor conseguida pureza artística», *Cairón : Revista de Ciencias de la Danza*, Madrid, 10. zenb., 2006, 5.-52. or.

Bilbao 2013

Mikel Bilbao Salsidua. «Los Ballets Suecos de Rolf de Maré y su gira española de 1921», *Musicología global, musicología local*. Madrid : Sociedad Española de Musicología, 2013, 1443.-1462. or.

Biot 1995

Fernand Léger et le spectacle. [Erak. kat., Biot, Musée National Fernand Léger]. Paris : Réunion des musées nationaux, 1995.

Biot 2003

F. Léger et les arts décoratifs. [Erak. kat.]. Biot : Musée National Fernand Léger, 2003.

Biot/Niza/Vallauris 2009

Dis-moi, Blaise... Léger, Chagall, Picasso et Cendrars. [Erak. kat., Biot, Musée National Fernand Léger; Niza, Musée National Marc Chagall; Vallauris, Musée National Pablo Picasso]. Paris : Réunion des musées nationaux, 2009.

Cendrars 2010

Blaise Cendrars. *Antología negra*. Madrid : Ediciones Ardora, 2010.

Cocteau 1920

Jean Cocteau. *Carte blanche*. Paris : Éditions de La Sirène, 1920.

La Danse 1924

«Número consacré aux Ballets Suédois de Rolf de Maré», *La Danse*, Paris, azaroa-abendua, 1924.

Denizeau 2008

Gérard Denizeau. *Denise Majorel : une vie pour la tapisserie*. Aubusson : Musée départementale de la Tapisserie, 2008.

Dolbin 1925

B. F. Dolbin. «Die internationale Ausstellung neuer Theatertechnik in Wien», *Der Sturm*, Berlín, 1925eko uzataila, 97.-100. or.

Einstein 2002

Carl Einstein. *La escultura negra y otros escritos*. Barcelona : Gustavo Gili, 2002.

Fadat 1992

Jacques Fadat. *La tapisserie d'Aubusson : son histoire, sa technique*. Aubusson : J. Fadat, 1992.

Fokine... [et al.] 1931

Michel Fokine... [et al.]. *Les ballets suédois dans l'art contemporain*. Paris : Editions du Trianon, 1931.

Ginebra 2000

«*La Création du monde*» : *Fernand Léger et l'art africain dans les collections Barbier- Mueller*. [Erak. kat., Ginebra, Musée d'art et d'histoire de Genève]. Paris : Adam Biro, 2000.

Guinot 2009

Robert Guinot. *La tapisserie d'Aubusson et de Felletin*. Saint-Paul : Lucien Souny, 2009.

Häger 1989

Bengt Häger. *Ballets suédois*. Paris : Jacques Damase : Denoël, 1989.

Léger 1990

Fernand Léger. *Funciones de la pintura*. Barcelona : Paidós, 1990.

Mawer 1997

Deborah Mawer. *Darius Milhaud : modality & structure in music of the 1920s*. Aldershot : Scolar Press, 1997.

Milhaud 1974

Darius Milhaud. *Ma vie heureuse*. Paris : Belfond, 1974.

Näslund 2009

Erik Näslund. *Rolf de Maré : art collector, ballet director, museum creator*. Binsted, Hampshire : Dance Books, 2009.

Norman Baer 1995

Nancy van Norman Baer (arg.). *Paris modern : the Swedish Ballet, 1920-1925*. San Francisco : Fine Arts Museums of San Francisco, 1995.

Rovereto 2005

La danza delle avanguardie : dipinti, scene e costumi, da Degas a Picasso, da Matisse a Keith Haring. [Erak. kat., Rovereto, Museo di Arte Moderna e contemporanea di Trento e Rovereto]. Milano : Skira, 2005.

Viena 1924

Internationale Ausstellung neuer Theatertechnik. [Erak. kat., Viena, Musik- und Theaterfest der Stadt Wien]. Wien : Würthle, 1924.